

ANTZERK BILDUMAKI

literatura
Susa

LEHAZE



GANBILA

GANBILA, ANTZERKI BILDUMA

Ispilu ganbila: kanpo aldera kurbatua duen ispilu bat da, non fokua ispiluairen barruan dagoen puntu bat den. Ispilu ganbilak oro har ikuspegi zabala hartu nahi den egoeretan erabiltzen dira; hala ere, irudi deformatua ematen dute.

Nekez irudika genezake antzerki bilduma honetaz aritzeko metafora egokiagorik. Proiektu berri honekin euskal teatroaz ikuspegi zabala eman nahi genuke, unean unean fokua obra edota hainbat obra eta ahotsetan jarritz. Antzerkiak agertu ohi duen errealitatea, baina, deformatua da. Egiaren bila dabilen aktoreak bere gorputzeko izerdi, konkorr, orbain eta ezinak izango ditu lanabes; berrasmatu egingo ditu haragiz agertokira datozen hitzak. Tentsioan bizi du antzerkiak literaturarekiko harremana, zein neurritan izan behar duen testua abiapuntu ala tresna, ahots korden luzapen huts. Inolako tentsiori muzin egin gabe gatoz *Ganbila* bildumarekin, harreman arazotsu hori bera, deformazio eder hori bera, liburugintzari eta oro har kulturari egin dakioken ekarpen ederra delakoan. Teatro testu askok ez dute literatura helburu, eta hala ere, literatur balio handikoak izan daitezke; teatroan idazle diren ahots berri asko topatuko ditu bilduma honetan irakurleak, normalean beren buruari “literatur” idazle etiketa jartzan ez diotenak. Haiek eszenara eramandako hitzak irakurriko ditugu batzuetan, oraindik eraman gabekoak besteetan, baina baita ere antzerkigileen —eszena gaineko “idazleen”— sormen prozesuei buruzko gogoetak eta aldarriak. Eszenako erritual askeak —aske denean— permititzen duen aho bilorik gabeko gai multzoa ekarri nahi genuke, halaber, literaturara.

Denbora luzea eman dugu euskaraz idatzitako teatro-testu bilduma egonkorrik gabe; *Ganbila* hutsune bat betetzeko asmoz dator ezinbestean, hala paperean nola sarean artxibategi bokazioz osatzen joango garen tituluen bilduma zabalagoan. Zirtoa behar luke teatroak bide: emanaldi bakoitzeko erritual kolektiboan jendea antzokira sartu den ez bezala ateratzea kalera, eguneroko bizitzara. Asmo horrekin berarekin gonbidatzen zaitugu, irakurle, paperezko antzoki honetan sartzera, harritzera, asaldatzera, euskarazko teatro garaikidearen berri ahoz aho zabaltzera.

Ganbila proiektua Susa argitaletxeak bultzatutako liburu bilduma da, **EHAZE-Antzerkizale Elkartearekin** batera elkarlanean, Oier Guillanek koordinaturik. Bilduma sostengatzeko harpidedun kanpaina jarri dugu martxan.



GANBILA

2019ko UDAZKENA

1) BAZTERREKO AHOTSAK

Beheko Larraine taldearen bi antzezlanez osatutako liburua: *Atte hil aurretik* eta *Manifestu bat*. Horiekin batera Miren Tirapuri sortze prozesuez egindako elkarrizketa. **Egilea:** Miren Tirapu. **Testuak:** Miren Tirapu, Gaizka Sarasola. **Hitzaurrea:** Iasone Parada.

2) SIMPLICISSIMUS

2019ko udazkenean Tartean konpainiak estreinatuko duen antzezlan berriaren gidoia. **Testua:** Patxo Telleria. **Hitzaurrea:** Jokin Oregi. **Hitzostea:** Oier Guillan.

3) FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

Antzezlaneko testuarekin batera, Ximun Fuchs zuzendariak sortze prozesuaz idatzitako testua. **Egileak:** Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu. **Testuak:** Lantaldeak Igor Elortza eta Unai Iturriagarekin idatziak. **Hitzaurrea:** Arantxa Iturbe

2020ko UDABERRIA

4) ISILTASUNA

Eneritz Artetxek idatzitako testu originala. Bizitza den gatazkari buruz mintzo zaigu protagonista: feminismoaz, pertsonen arteko harremanez, erraiak astintzen dizkiguten eguneroko egoerez.

5) MAMI LEBRUN

Xake produkzioak konpainiak sortu eta Kepa Errastik idatzitako antzezlan.

6) 4.48 PSIKOSIA

Sarah Kane idazle ingelesak hil aurretik idatzitako azken obraren itzulpena.

HARPIDETZA: ganbila.eus, edota ondoko txartela bete eta postaz igorri.

Izen-deiturak.....

Posta elektronikoa.....

Helbidea.....

Herria..... Posta kodea.....

Telefona.....

Bankuko kontu zenbakia (20 digitu)

.....

Kontuaren jabea.....

Txartela honako helbidera bidali:

SUSA LITERATURA ARGITALETXEA

317 posta kutxa - 20800 Zarautz



BAZTERREKO
AHOTSAK




SIMPLICISSIMUS



FRANCOREN
BILOBARI
GUTUNA



ISILTASUNA



MAMI LEBRUN



4.48 PSIKOSIA

HARPIDETZA:
GANBILA.EUS

SUSA ARGITALETXEAREN BILDUMA
LEHEN HIRU ZENBAKIAK 2019KO UDAZKENEAN
HURRENGO HIRURAK 2020KO UDABERRIAN
URTEAN 48 € (BI KOBRAKETA: UDABERRIAN 24€ ETA UDAZKENEAN 24€)